

BIGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin.
- Lehenengo ariketa aldeztu aurretik prestatu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaikoei eskatu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ez da ebaluatuko. ■ Labor-labor bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/NANa/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldeztu aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. ■ Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. ■ Denbora: 3 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderari erantzuteko. ■ Batek bukatzen duenean, besteak ekingo dio. ■ 15 puntu. <p>2. ariketa: Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue. ■ Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukitzea da. ■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 6 min. elkarrizketan aritzeko. ■ 15 puntu. 	<p>30 min.</p> <p>(10 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

2. HE

(A fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Eman gai honi buruz duzun iritzia.
 - 10 min. dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

POSIBLE AL DA ALKOHOLIK GABEKO AISIALDIA?



Euskal Herrian ohikoa da lagunarteko aisialdia tabernaz taberna izatea. Tabernak dira lagunekin elkartzeko lekua, arratsaldea pasatzeko edo gaueko parrandak egiteko gune nagusiak. Ba al dakigu beste era batera ondo pasatzen? Posible al dugu alkoholik gabe lagunekin parranda egitea?

- Zure ustez, ondo pasatzea alkoholarekin lotuta al dago? Zergatik?
- Zer desabantaila dute horrelako parrandek?
- Ba al duzu beste alternatibarik gaueko parrandetarako?
- Beste herrialde batzuen aldean, zertan gara desberdinak?
- Gazteen kontua al da ohitura hau ala guztiona?

2. HE

(B fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Eman gai honi buruz duzun iritzia.
 - 10 min. dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

GAZTEAK ETA POLITIKA: GERO ETA URRUTIAGO?



Parlamentuetako aukietara begiratzea besterik ez dago: non daude gazteak? Esperientzia- eta heldutasun-falta izan daiteke politikan ez ibiltzeko arrazietako bat, baina, horregatik ez daude gure parlamentuetako aukietan? Ala politikatik urrundu dira gazteez eta beraien beharrez ez delako inor gogoritzen, inork ez dituelako behar bezala ordezkutzen?

- Gazteak politikatik gero eta urrutiago daudela uste duzu? Zergatik?
- Zergatik uste duzu gazteek ez dutela, oro har, politikan parte hartzen?
- Erakundeetatik kanpo egotea adinari soilik zor zaio?
- Politika egiteko beste modu bat dute? Zergatik?

2. HE**MINTZAMENA****(aztertzaileak)**

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo dugu orain.
 - Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue.
 - Helburua: argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukatzea.
 - Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.

Materiala eman (bakoitzari bere fitxa).
Zer egin behar duten azaldu:

Egitekoa:**BIZITZA OSORAKO BIKOTEKIDEA?**

Maitemintzen garenean, betirako dela pentsatzen dugu. Baina, garbi dago gero, kasu askotan, ez dela horrela gertatzen. Hainbat arrazoi daude tarteko: beste pertsona batzuek maitemintzea, esperientzia berriak ezagutzeko beharra, erakargarritasuna galdu egin dela... Gure pentsaera aldatu beharko genuke eta hasieratik garbi izan buka daitekeen harremana izan daitekeela? Gizartean ideia hori zabalduko balitz, ez litzateke frustrazio gutxiago egongo?

Fitxan zenbait argazki ikusiko duzue. Komentatu eta eman iritzia, nork berea. Horren ondoren, zeuen artean eztabaidatu eta saiatu aukeren artean adostasunera iristen.

- 1 min. duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min. inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...
(komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada)
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak:

Galdera osagarriak

- Zein dira betirako bikotekidearen alde positibo eta negatibo nagusiak? Zergatik?
 - Haurrak tartean egoteak badu gure harremanen luzerekin zerikusia? Zergatik?
 - Zure ustez, barneratuta dugun betirako bikoteen ideia baztertu beharko genuke? Zergatik?
-

BIZITZA OSORAKO BIKOTEKIDEA?

